

Ezpalak

JON TORNER

Ruper Ordorikak *Hamar t'erdietan* CD-DVDA (Elkar) plazaratu du. Mugalaris musika taldearekin Bilboko Kafe Antzokian grabatu zituen zuzeneko kantak bildu ditu oñatiarrak lan berrian.

John McLaughlin gitarrista ingelesa eta Arturo Sandoval tronpeta jotzaile kubatarra Getxoko 32. Jazz jaialdiak bilduko dituen musikarietako bi dira. Uztailaren 8tik 12ra bitartean egingo da jazzaldia.

Jokin Muñoz (Castejon, 1963) eta Jon Gerediaga (Bilbo, 1975) saritu ditu Espainiako Kritikarien Elkarteak. Muñozen *Antzaren bidea* lanak narratiba saileko Kritikaren Saria irabazi du, eta Gerediagaren *Jainkoa harrapatzeko tranpak*, berriz, poesia sailekoa.

Catherine eta Patrick Sagor senar-emazteen bildumako artelanak jarri dituzte ikusgai Miarrizteko Santa-Eukene kriptan. *Arte afrikarra. Pentsakera magikotik artearen mirakuluraino* erakusketa ekainaren 22a arte izango da zabalik. Jendaurrean aurreneko erakutsi dituzten ehun artelantik gora ikus daitezke bertan.

Gladys Faith Agulhas afrikarrak idatzi du Dantzaren Nazioarteko Eguneko mezua



ARTEZ

“Dantza, ezinezkoa posible dela islatzen duen ispilu bat da, ezinezkoa mundu guztiak ukitu dezan, sentitu dezan, entzun eta nabaritu dezan”. Gladys Faith Agulhas dantzari afrikarrak Dantzaren Nazioarteko Egunerako idatzi duen mezua-ren parte dira hitz horiek. Apirilaren 29an, Jean-Georges Noverre koreografo frantziarraren (1727-1810) jaiotzaren urteurrenean, dantza ukitu, sentitu eta entzuteko aukera ederra izango dugu. Mundu

osoan ekitaldi mordo antolatuko da egun horretan, eta zenbait lekutan astebete edo hilabete iraungo duten egitarauak prestatu dituzte. “Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu! Dantzarekiko duzuen grina elkar sendatzeko erabili ezazue. Bateratu zuen dantza komunitatea, eta garrantzitsuena, izan zaitezte ahal duzuen besteko zintzoak”.

Film labor lehiaketa jarri du abian Euskal Herriak Bere Eskola taldeak

EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA (EHBE) taldeak *Campusak biluztu* film laborren lehiaketa antolatu du. Aurkeztutako lanek 10 minutuko iraupena izan behar dute gehienez. Euskaltubera igo eta loturak campusakbiluztu@hotmail.com helbidera bidali behar dira. Filmak bidaltzeko epea apirilaren 22an amaituko da, eta aurkeztutako lan guztiak EHBEren webgunean izango dira ikusgai. Lehiaketaren aurkezpen bideo bitxia ikus dezakezue jada. Informazio gehiago: www.euskaleskola.org.

[Aritz Galarraga kazetariak liburu tradizionalak vs. liburu birtualak auziari buruz idatzi du *Bazka.info* webgunean:](#) «Jeff Bezos jaunak, Amazon.com liburu denda birtualaren sortzaileak, nahikoa argi du liburu tradizionala desagertuko dela: ‘egun gutxi geratzen zaizkie paperezko orriek, etorkizuna liburu digitalean dago’. Bezosen hitzak egia badira, zergatik ez du dagoeneko liburu elektronikoak liburu tradizionala ordezkatu? Erantzunaren gako nagusietakoa Bezosen berak eman zuen, goikoak esan ondorenean: ‘objektu oso sofistikatuak dira liburuak eta hain ongi betetzen dute beren helburua ezen zaila baitzen horiek gainditzea’ (...) Liburu tradizionalaren bertuteengatik bakarrik gertatu al da hori? Liburu elektronikoaren herrenak ere aztertu behar dira. Esperientziak erakusten digu saldu nahi den gauza oro beharrezkoa eta ordezkaezina balitz bezala aurkeztu behar zaiola balizko erosleak, nahiz eta askotan bi tasun horiek erabat egia ez izan. Publizitateak badaki zerbait horren inguruan. Eta, egia esan, egun, beharrezkotik eta ordezkaezinetik gutxi dute merkatuan aurki daitezkeen liburu elektronikoak».

[Xabier Etxaniz Erle haur eta gazte literaturaz *Deian*:](#) «Oraindik ere gure gizartean jende askok uste du helduentzako nobela bat idatzi duena idazleago dela haurrentzat idatzi duena baino. Baina inori ez zaio bururatzten pediatria bat bigarren mailakoa medikua dela esatea! (...) Euskaraz literatur liburuen kritikak biltzeko esfortzu handia egiten dute Susakoek, eta datu base garrantzitsua egin dute. Hor ez dago haur eta gazte literaturarentzako (HGL) lekunik. Oraintsu Ibon Egaña eta Iratxe Retolazari eman diete beka bat komunikabideetan eginiko liburuen kritikak aztertzeko, baina ez dituzte kontuan hartuko HGLko kritikak... Nik ez dakit nola demontre esan behar zaion jendeari, baina HGLn badira helduen literaturan ez ditugun perlak».

[Amador Vega estetika irakasleak *Berrian*:](#) «*Quousque tandem...!* liburu Oteizak ideario bat bezala aurkeztu zuen. Hark eragin egin nahi zuen bere herriaren kulturaren eta bere herriaren denboran. Baina autobiografikoki irakurri behar dela iruditzen zait. Hor daude bere zauri guztiak, bere aldaketa une guztiak. Dietario bat da».


Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Gerra, bakea eta... barrea

Catch-22. Joseph Heller, 1961.

Aspaldi ez nuen hainbeste barre egin... gerrari buruzko nobela batekin. Interneten bueltaka izan nuen haren berri –“gazte hauek, beren ordendoreekin denbora galtzen liburuak leitu beharrean!”–, eta geroztik mundu guztiak irakurtzeko gomendatzen zidala iruditu zait. Tankerako gomendioek askotan ostikada izaten dute arrazoizko erantzun bakarra, baina oraingoan gehiengoaren esanaren aurrean burua makurtu beharrean naiz.



Joseph Heller soldadua izan zen AEBetako armadan, bonbaketaria. Bonbaketaria da Yossarian ere nobelaren hasieran, nahiz eta gibelego mina daukala esanda ospitalean dagoen. Beldur izugarria dio bere lanari eta, ahal duenean, betebeharra saihesten ahalegintzen da. Gerra gorrian “Ni hil nahian ari dira” kexatuko da; “Inor ez da ari zu hil nahian” erantzungo diote; “Zergatik ari zaizkit orduan tiroka?” galdetuko du, eta mundu guztiari tiroka ari direla azaldu beharko diote. “Eta zein da diferentzia?” Yossarian jeniala esnatu da lehen aldiz.

Marx anaien umorea hartu diot nobelari pasarte batzuetan, baina liburu batez hizketan zinema erreferentziak erabiltzea baten batentzat itsusi samarra izan daitekeenez, beste hainbat iturritatik edaten duela esan dezadan. Bi boxeo izar aipatzeagatik, Franz Kafka eta Louis-Ferdinand Céline nabarmenduko nituzke. Oso nobela kafkiarra da, bizitza bezain absurdo, paradokiko, gordina; umorea nobelan etengabea den arren.

II. Mundu Gerrako giroak ordea, Célinerren *Gauaren muturrerainoko bidaia*-ren Gerra Handiarekin antzekotasunak ere baditu. 1910eko hamarkadako Paris, bere zoko ergel-itsusiak, prostitutak eta bere bizia salbatzeaz gain idealik ez duen Ferdinand Bardamu; 1940ko hamarkadako Erroma, *Tonyren jaitexea*. *Janari fina*. *Alde hemendik*. dioen kartela, prostituta gehiago eta gau eternala. Hellerren pertsonaiak, dena dela, etika apur bat gehiago duela esango nuke Célinerrenarekin konparatuta.

Gaiaren trataerak harritu nau, gerraz sano barre egin daitekeela ikusteak. Askoz gehiago ere badago baina: eromenaz, laguntasunaz, etikaz, askatasunaz... Hari asko josten dituen obra da.

Joseph Hellerrek 1961ean idatzi zuen *Catch-22* eta azkar demonio bihurtu zen *bestseller*. *Time* aldizkariak ingelesez idatzitako ehun nobela garaikide onenen artean jarri zuen. Batzuetan merkatuak liburu onak ere asimila ditzake, zoriekoak gu.

kenzazpi

www.kenzazpi.com · www.pserrano.com



“Argiak” diskoaren aurkezpen kontzertua

kenzazpi
taldearen eskutik.

Apirilaren 19a, 22:00etan
Bermeo-ko
Kafe Antzokia

SARRERAK: 5 euro



Disko berria!

serrano



BERMEO-ko
UDALA